



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko azaroaren 24a

103. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako errepideei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako polizia buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Otik 3 urtera bitarteko haur hezkuntzaren arloko neurriei buruzkoa. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Foru Lege proposamena, energia aurreztu eta energia berriztagarriak sustatzeari buruzkoa. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Gizarte Segurantzaren kuota ordain diezaien nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategi baten titularkide diren emakume guztiei. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan teknologia berrien alorrean. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da fibromialgiako eta neke kronikoaren sindrome gaixoen tratamendurako jarduketa protokolo bat taxutu dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da AP-15ean telesari sistemak instalatzeko behar diren jarduketak egin ditzan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (19. or.).

—Adierazpen politikoa, emakumeen askatasuna, autonomia eta segurtasuna aldezteko. Eledunen Batzarrak onetsia (19. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Real Madrid futbol taldeko lehendakariari harrera ofiziala egiteko arrazoiei buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (20. or.).
- Galdera, jakiteko zenbat alditan erabaki duen Nafarroako Gobernuak Espainiakoari eskatzea trafikoari buruzko eskumena, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina (20. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak Atarrabian bigarren hezkuntzako institutu bat eraikitzeke asmorik ote duen jakiteko, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (21. or.).
- Galdera, jakiteko Ingurumena babesteko jarduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legeko 7. artikuluan xedatzen dena bete ote den Elerebro enpresari Castejónen zentral termiko bat jartzeko lizentzia ematean, foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak egina (22. or.).
- Galdera, jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko Baluarteko plaza zolatzeari, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (23. or.).
- Galdera, jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko aireko garraioetako publizitate instituzionalari, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (24. or.).
- Galdera, jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko Barillasko eremu soziokulturalari, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (24. or.).
- Galdera, jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko Ostiako San Gregorioren basilika zaharberritzeari, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (25. or.).
- Galdera, jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko Corellako San Miguel eliza zaharberritzeari, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (25. or.).
- Galdera, bide hezkuntzako monitore (erdi mailako teknikari) izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (26. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren marketin eta publizitate kanpainaren helburuari, baliatu diren hedabideei eta aurrekontuari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (27. or.).
- Galdera, ospitaleratu beharra eragin duten barizela eta meningitis kasuei buruzkoa, foru parlamentari Helena Santesteban Guelbenzu andreak egina (28. or.).
- Galdera, gazteek sortutako enpresak sustatzeko sozietate bat eratze aldera Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuak eta Nafarroako enpresaburu gazteen elkarteak sinatu duten lankidetzahitzarmenari buruzkoa, foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andreak egina (28. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberako auditoretzako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzekoa. Behin betiko izendapena (30. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako errepideei buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 20an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako errepideei buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2006ko abenduaren 18ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2006ko azaro-

aren 17ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Foru Lege proiektua, Nafarroako poliziei buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 20an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako poliziei buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2006ko abenduaren 18ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2006ko azaro-

aren 17ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Foru Lege proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Konstituzioak osasuna babesteko eskubidea dela-eta agindutakoa Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legearen bitartez garatu zen. Garapen hori Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko 53., 54. eta 58. artikuluetan Nafarroari osasun eta higiearen alorretan, bere eskubide historikoak direla-eta, aitortzen zaizkion eskumenen barruan egin zen. Eskumen horiek dira, batetik, Estatuaren oinarrizko legedia garatu eta betetzea, barne osa-

sunaren eta higie eta gizarte-segurantzaren alorretan, eta, bestetik, Estatuaren legedia betetzea farmazien eta farmazia-produktuen alorrean.

Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorraren esparruan eman zen 10/1990 Foru Legea, eta horren xedea da foru erkidegoko administrazio publikoen eta entitate pribatuen ardura diren osasunaren, higiearen eta osasun laguntzaren arloko jarduerak arautzea, Nafarroako Osasun Zerbitzuaren egitura organikoa sortzea eta hura foru administrazioaren zentro eta osasun zerbitzu bereki guztien eta hari eskualdatutakoen kudeatzaile gisa zehaztea, eta, azken batean, osasunari buruzko konstituzioaren aurreikuspenen araupetze orokorra egitea, foru erkidegoan bizi diren herritar guztiek osasuna babestua izateko daukaten eskubidea gauzatze aldera.

Foru lege horren zioen azalpenak berak adierazten duenez, osasun sistemako zerbitzuak hartzeari dagokionez, aukera berdintasunaren printzipioa aldarrikatzen da. Printzipio hori, betiere, ez da mugatu behar zerbitzuak fisikoki hartze hutsera. Izan ere, printzipio horren gauzatzea administrazio boki ere lortu beharra dago; hain zuzen ere, zerbitzu hori unibertsala bihurtuz, herritarrei denboraren eta diruaren kostuengatik ezarritako ozto-poak deuseztatuz eta herritar guztientzat aukerak kultura ikuspegitik berdinduz eta, denentzat berdinduz, era berean, osasun laguntzaren kalitate-bermea. Aipatu foru legeak ondoko printzipioak ezartzen ditu: efizientzia soziala, decentralizazioa, osasun laguntzaren kalitatea eta humanizazioa, parte-hartzea, askatasuna eta baliabideen plan-gintza eta erabilera; betiere, printzipio horiek osasun kudeaketako sistema moderno baterantz bideratuko dira, halako moduan non osasun zerbitzuen jardun autonomo eta parte-hartzailearen bitartez osasun publikoaren arduradunek eskura dituzten osasun baliabide guztiak modu efiziente-an erabiliko diren.

Printzipio horiek ezarrita dauden arren, Osasunari buruzko foru legeak indarra hartu zuenetik

iragan diren urtetan, osasun sistemaren bilakaera ez da izan nahi genukeen bezain egokia. Herritarrei laguntza emateko arazoak, profesionalak eta osasunaren erabiltzaileek salatu izan dituztenak, bereziki garrantzitsuak dira oinarrizko osasun laguntzaren arloan, zeina arau horretan definitzen baita jarduera medikoen eta laguntzazkoen multzoa biltzen duen osasun sistemaren oinarri gisa; hain zuzen ere, norberak zuzenean hartzen dituenak, osasuna sustatzekoak, gaixotasunei aurrea hartzekoak eta zerbitzu sozio-sanitarioen sare publikoaren koordinatuta gizarteratzekoak.

Oinarrizko osasun laguntza osasun sistemaren benetako ardatza da; osasun arazo gehien-gehienak hartzen eta konpontzen ditu; herritarrentzat irisgarria gertatzen da, denentzat berdina eta efizientea, eta gainera hurbilena eta konfiantzazkoa dute. Argi dago oinarrizko osasun laguntza ongi hornitua eta kalitatezkoa duten herrialdeetan osasun adierazle hobeak daudela, dauden baliabideak modu bidezkoagoan banatzen direla herritarren artean eta osasun sistemak askoz ere efizientea goak izaten direla.

Kalitatezko oinarrizko osasun laguntza bat izateko arazo handienetako bat da urriak direla herritarrei laguntza egokia ematea bideratzen duten baliabide material, pertsonal eta antolamenduzkoak. Sintoma kezkarri batzuk antzeman izan dira: profesional bakoitzari atxikitako gaixoak gehiegi izatea eta gaixo horientzako denbora gutxi izatea, eta profesionalak beren lanak –eta berariaz, beren gaurkotzearekin eta prestakuntzarekin loturiko jarduerak– egiteko denbora gutxi izatea. Esan denez, Espainian mediku bakoitzak 1.500 gaixo artatzen ditu, batez beste; aldiz, Nafarroako profesional batzuek 2.000 baino gehiago dituzte. Hala ere, azterlan batzuen arabera, kopuru egokia ez litzateke izan behar 1.200 eta 1.300 artekoa baino handiagoa mediku bakoitzeko.

Hori dela eta, beharrezkoa da gure osasun sistema arautzen duen lege esparruan neurri berriak ezartzea, azaldutako arazoak konpontzeko eta botere publikoek herritarrei osasunaren babesaren arloan eman beharreko laguntzaren kalitatea hobetzeko.

Artikulu bakarra.

Beste artikulu bat gehituko zaio, 57 bis artikulua, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeari. Hona testua:

“57. bis artikulua. 1. Nafarroako Gobernuak erregelamendu bidez ezarriko ditu oinarrizko laguntzaren antolamendu eta kudeaketa arauak. Arau horiek ondoko printzipioen mende egonen dira:

a) Osasun etxeetako kudeaketaren autonomia eta malgutasuna.

b) Talde lana, diziplina anitzetako antolamendu baten barruan.

c) Gauza eta giza baliabideak helburu eta jardueretara egokitzea.

d) Baliabideak modu eraginkorrean erabiltzea eta kontsultak desburokratizatzeak ahaleginak egitea.

e) Informazioa prozesatzeko sistemen, erabiltzaileekin urruneko komunikazioa ezartzeko bideen eta teknologia diagnostiko eta terapeutiko berrien erabilera bultzatzea.

f) Kalitatearen adierazle eta kontrolak ezartzea.

2. Erregelamendu bidez ezarriko dira ondoko helburuak lortzeko neurriak:

a) Osasun etxeetako profesionalak artatu beharreko gehieneko erabiltzaile kopurua ezartzea, arretarik egokiena ziurtatzeko.

Profesional bakoitzak artatu beharreko gehieneko erabiltzaile kopurua ez da izanen inolaz ere 1.400 osasun txartel baino gehiagokoa helduen kasuan, ezta 800 txartel baino gehiagokoa pediatrian.

b) Erabiltzaile kopuru egokiena ezartzea oinarrizko osasun barruti bakoitzerako, eta kopuru hori gainditzen denean, barrutiak berrikusteko prozedura hastea.

3. Erregelamendu bidez ezarriko dira beharrezkoak diren neurriak oinarrizko laguntzako profesionalak, beren lanaldiaren barruan, birziklatze, gaurkotze eta etengabeko prestakuntzako jarduerak egin ahal ditzaten, jarduera horien zati bat taldean egitea ahalbidetzeko, baita, halaber, lan ordutegitik kanpo egiten dituzten prestakuntza jarduerak sustatzeko ere.”

Lehen xedapen gehigarria

Urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak oinarrizko laguntza garatzeko plan berezi bat, osasun planaren osagarria, prestatu eta Nafarroako Parlamentura bidaliko du. Plan horretan oinarrizko laguntzaren egoeraren azterketa jasoko da, baita beste alderdi batzuk ere, hala nola lehentasunak, helburuak eta garatu beharreko programak, metodologia eta planaren ebaluazioa, kronograma eta entitate arduradunak, eta planean jasotako ekintzak betetzeko beharrezkoak diren baliabideen balioespena.

Bigarren xedapen gehigarria

57 bis artikulua 2. idatz-zatiak aipatutako gehieneko zenbakiak ezartzen ez diren bitartean, profesional bakoitzeko ondoko kupoak aplikatuko dira hiri barruko eta hiri inguruko eskualdeetan:

- 1.400 osasun txartel, helduen kasuan.
- 800 osasun txartel, pediatria arloan.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehenbizikoa. Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatzeko behar diren erregelamenduzko arauak emanen ditu urtebeteko epean.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek 2007ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra, edo Nafarroako Aldizkari Ofizialean egun hori baino beranduago argitaratuko balitz, argitaratu eta biharamunean.

Foru Lege proposamena, Otik 3 urtera bitarteko haur hezkuntzaren arloko neurriei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak Otik 3 urtera bitarteko haur hezkuntzaren arloko neurriei buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Otik 3 urtera bitarteko haur hezkuntzaren arloko neurriei buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Otik 3 urtera bitarteko haur hezkuntzaren arloko neurriei buruzko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren 7. artikuluan xedatzen da haur hezkuntza, alegia, sei urteko adinera bitartekoa, borondatezkoa izanen dela eta administrazio publikoek bermatuko dutela nahiko toki izatea, eskatzen duten guztiek eskolaratzeko aukera izan dezaten.

Oraindik ezartze-prozesuan den Hezkuntzaren kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoak 10. artikuluan ezartzen duenez, "eskolaurreko hezkuntzaren helburua da hezkuntza eta laguntza ematea lehen haurtzarotan, hiru urte bitarteko haurrei emanen zaie eta borondatezkoa izanen da gurasoentzat. Administrazio eskudunek erantzuna emanen die familietan dauden beharrei eta eskariari aurre egiteko behar adina toki eskaintzen dela koordinatuko dute".

Nafarroako Foru Komunitateko herri askotan ez dago ikastetxerik Otik 3 urtera bitarteko haur hezkuntza eskaini ahal izateko; beste batzuetan, titulartasun pribatuko ikastetxeak bakarrik daude eta, azkenik, beste herri batzuetan titulartasun publikoko ikastetxeak daude, baina udalentsat oso zaila da halako ikastetxeak sortu eta sostengatzea. Edonola ere, postuen eskaintza ez da nahikoa dagoen eskaerari erantzuteko, eta ikasturtero argi geratzen da Nafarroako familia asko ikaspostu

publikorik gabe geratzen direla haien seme-ala-bentzat eta ezin dutela titulartasun pribatuko ikaspostu bat ordaindu.

Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloa eskaintzen duten ikastetxeek eginkizun garrantzitsua betetzen dute gizartean: desberdintasunak konpentsatzen laguntzen dute, emakumeei lan merkatuan sartzeko aukera hartzea errazten diete eta gurasoei familia eta lana bateratzea eta seme-alaben heziketa partekatzea ahalbidetzen diete.

1. artikulua. Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza Departamentuaren bitartez, hezkuntzaren arloan dagozkion eskumenak erabiliz, eskaerari erantzuteko adina ikaspostu izatea bermatuko du Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloko ikastetxeetan.

2. artikulua. Foru Komunitateko administrazioaren titulartasunekoak diren Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloko ikastetxeak eta udalen titulartasunekoak direnak sare bakar batean sartuko dira. Hezkuntza Departamentuari dagokio sare hori kudeatzea.

3. artikulua. Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloko ikastetxe publikoak finantzatzeko sistema bat ezarriko da Nafarroako aurrekontu orokorretan, ikastetxe horien finantziazio egokia bermatuko duena. Udalek ikastetxe horien sostengurako laguntza emanen dute, lehen hezkuntzako etapetan egiten duten baldintza berdintsuetan.

4. artikulua. Nafarroako gobernua prezio eta laguntza sistema bat ezarriko du, familia guztiei eta, bereziki, baliabide ekonomiko gutxien dituzte-

nei, Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloko postuak eskuratzen ahalbidetzeko.

Xedapen gehigarriak

Lehenengoa. Nafarroako Gobernuak foru lege honetan xedaturikoa aplikatzeko beharrezkoak diren hitzarmenak adostuko ditu Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloko ikastetxeen titularrak diren udalekin.

Bigarrena. Urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloa garatzeko plan bat onetsiko du, foru lege honetan xedaturikoari jarraikiz. Plan horren arabera, Otik 3 urtera bitarteko zikloko laguntza ematen duten ikastetxe eta laguntza zentro guztiak hezkuntza sare berean sartuko dira pixkana, bai Hezkuntza Departamentuaren menpekoak, bai Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren menpekoak. Halaber, lurralde oreka egokia hartuko da kontuan sare horretako ikastetxeen banaketa ezartzerakoan.

Azken xedapenak

Lehenengoa. Nafarroako Gobernuak behar diren erregelamenduak emanen ditu foru lege honek ezarritakoak aplikatu eta garatzeko.

Bigarrena. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra foru lege honek. Dena den, eta 3. artikuluan aurreikusitakoari dagokionez, ez du aurrekontu-ondoriorik izanen 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen.

Foru Lege proposamena, energia aurreztu eta energia berriztagarriak sustatzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak energia aurreztu eta energia berriztagarriak sustatzeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Energia aurreztu eta energia berriztagarriak sustatzeari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Energia aurreztu eta energia berriztagarriak sustatzeari buruzko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Energiak ingurumenean eta natur baliabideen ahiduran duen garrantzia zalantzan jartzetik ez dago egun, eta hala ezarri da nazioarteko foro guztietan, Europako Batasunean barne. Gure herrialdeak konpromiso batzuk hartu ditu gainerako estatuak, Rio de Janeiroko 1992ko Goi bileran (Agenda 21), Kyotoko Goi bileran (1997) eta Europako Batasunean, Ingurumenaren V. Egitaraua onestean. Horietan guztietan Espainiak ezarri dituen helburu nagusiak hauexek izan dira: iturri fosiletatik heldu den energiaren kontsumoa gutxitzea, energiaren kontsumoa, biztanleko, gutxitzea, atmosferaren kutsatzaileen igorpenak gutxitzea eta energia berriztagarriek kontsumo elektrikoan duten parte hartzea pixkanaka handitzen joatea.

Europar Batasunak, berriz, konpromisoa hartu du kide diren herrialdeetan kontsumitzen den lehen mailako energiaren ehuneko hamabost

energia iturri berriztagarrien bidetik lortzeko, 2010. urterako. Konpromiso horiek administrazio zentralak ez ezik gainerako administrazio publikoek eta herritar guztiek ere onartu behar dituzte

Kyotoko 1997ko Goi bileran, estatuak bertan hartutako konpromisoak urriak izan baziren ere, agerian gelditu zen adostasun orokorra zegoela atmosferaren kutsadurak eragindako klima aldaketa kezkarriari aurre egiteko neurri bereziak hartu behar diren inguruan. 2002ko martxoaren 11n, Diputatuen Kongresuan talde guztiek aho batez onetsi zuten Kyotoko Protokoloa berrestea.

Foru Lege proposamen honek tresna bat izan nahi du, Nafarroari aipatutako igorpenak gutxitu eta, horrela, protokolo horretako xedeak betetzeko bide emanen diona.

Foru Komunitateko Gobernuaren eta Parlamentuaren zeregina, arlo honetan, plan energetiko bat –Estatuko legediaren aplikazioak ezeztatua– onestera, dirulaguntza urri batzuk ematera eta energia eolikoaren emakidak erregulatuzera bideraturik dago.

Foru Lege proposamen honen asmoa da aurrerapausoak sustatzea Nafarroako politikak energia berriztagarriari –modu zabalean ulerturik– ematen dien garrantzia areagotzeko, eskaria kudeatzeko politikak –energia aurreztera zuzendutakoak– barne.

Nafarroak gaitasun handia du energia mota honen iturri gisa. Energia eolikoak gure erkidegoan azken urteotan izan duen hazkundera ikusgarria da, baita aurreikuspenen gaintekoa ere, eta horrek arazoak eragin ditu ingurumenean, aurreikuspen eta plangintza ezaren ondorioz eta toki batzuetan ezarritako aerosorgailuen kopurua gehiegizkoa dela-eta. Biomasa da Nafarroan hazkunde ahalmen handiena duen energia iturri berriztagarria, batez ere jatorria oihanean duena eta labore energetikoak, zeinak itzaropenaren ateak zabaltzen dituzten bai gure nekazaritzaren etorkizunari bai populazioa eskualde endekatuetan bizitzen jartzeko aukerei begira. Bestelako iturri batzuek ere, eguzkiarenak –termikoa eta fotovoltaikoa– eta hidroeletrikokoak adibidez, parte hartze garrantzizkoa dute Nafarroako energia kontsumoan, ingurumen arloko kontrol egokia egin eta zenbait ibai tartek jasaten duten saturazioa saihesten bada, hidroeletrikokoaren kasuan.

Bestalde, energia berriztagarrien sektorea garrantzi gero eta handiagoa hartzen ari da eko-

nomian, eta Nafarroako enpresa sektoreak ere partaidetza aktiboa du. Eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak sustatzea, ingurumena babesteaz eta nahikotasun energetikoari laguntzeaz gain, baliagarria izanen da goraka doan enpresa sektore bat areago bultzatu eta Nafarroaren garapen ekonomikoaren alde egiteko. Sektore horiek lanpostu –zuzen nola zeharkako– berrien sorburu izanen dira, neurri handikoa izan ere, Europako Batasunaren kasuan, 2020. urterako bederatzehun mila izanen direla kalkulatu baita, eta horietatik 100.000 Espainiako Estatuan sortuak. Eredu horietan dagoen eskulan premia ohiko energietan erabiltzen dena baino askoz handiagoa izaten da.

Nafarroako gizartea jabeturik dago aspaldi Espainiako Estatuan energia nuklearraren alde eginiko apustuak ekarri dituen alderdi negatiboez. Denborak arrazoia eman die azkenean instalazio mota horren segurtasunaz eta bideragarritasun ekonomikoaz duda egin zutenei, eta egun energia hori atzeraka doa herrialde garatu gehien-gehienetan. Espainiako Gobernuak berak moratoria bat dekretatu zuen, proiektuan edo eraikitzen ari ziren zentral nuklear guztiak geldiarazi zituen. Gaur egun, jardunean dauden zentral guztiak eraisten joanen dira erabileraren mugara ailegatu ahala.

Energia aurrezteko hura ekoiztea baino merkeagoa da. Atzean gelditu da aurrezpen energetikoa gabezia edo eskasiarekin identifikatzen zen garai hura. Teknologia berriei esker, egun ongizateari eta prestazioei eutsi ahal zaie energia asko aurreztuz. Energiaren edo lehengaien laurdenarekin antzeko ongizatea lortzeko teknikak eskaintzen dituen aukerei “4 faktorea” izena eman die Erromako Taldeak. Espainiako plan energetikoaren arabera ere gure herrialdeak %7,6 gutxitu dezake energiaren kontsumoa 2000. urterako, aurreikuspen hori oso asmo handikoa ez bada ere.

Sektore elektrikorako Estatu lege berriak, zeina Gorte Nagusiek oinarritzko legeriaren izaera emanez onetsi baitute berriki, aurrezpen eta energia eraginkortasunaren planak sendotasunez garatzeko oinarriak ezarri ditu. Halaber, energia berriztagarriak eta baterako sorkuntza sustatzeko lege, teknika eta tarifa estaldura ematen duten lanabesak mantentzen ditu, bereziki Estatu lege horrek arautzen duen “energia elektrikoa ekoizteko araubide berezia” delakoan sartu daitezkeen kasuetan. Foru lege honen asmoa, bestalde, Nafarroako Foru Komunitateak arlo horretan dituen eskumenez baliatzeko funtsezko oinarriak ezartzea da, Estatu oinarritzko arauetan ezarritako ildoaren barrenean.

Testuinguru horretan, foru lege honen egitura hauxe da: lau kapitulu eta zenbait xedapen gehigarri eta iragankor. Lehendabiziko kapituluan, testuak islatzen du Nafarroak uko egin ziola instalazio nuklearrak paratzeari gure lurraldean. Arlo honetako ikerketa eta garapeneko proiektuen kasuan, gehieneko potentzia 500 kW-ekoa izanen dela ezartzen da eta, orobat, ez dutela foru gobernua inolako laguntzarik jasoko. II. kapituluan energia eraginkortasunerako eta energia berriztagarrietarako planen ezarpena arautzen da; planok gai horietako politika integrala urte batzuetan planifikatzeko tresna izanen dira, Estatu eta Europar Batasuneko planifikazioan txertaturik. Zehatz-mehatz ezartzen dira plan horiek hartu beharko dituzten alderdiak eta horiek prestatzeko metodologia.

III. kapituluan Nafarroako Energia Eraginkortasunerako eta Energia Berriztagarrien Institutua sortzen da, erakunde autonomoaren izaerarekin. Erakunde horren helburu behinena da Nafarroan gai horietako politika aktiboa antolatzea; horrelako entitateekin malgutasuna eta espezializazioa lortzen da, baina jarduketan gainean beharrezkoa den kontrol publikoa galdu gabe. Ezartzen diren gobernu organoek egitura soila dute, burokrazia eta organigrama gehiegizkorik gabe. Era berean, institutuak merkataritzako sozietate publikoetan parte hartzeko bidea irekirik uzten da.

Institutuak bere gain hartuko dituen eginkizunen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren departamentu guztiek, baita beste administrazio publikoetakoek ere, gauzatzen dituzten politiken behatoki bihurtzea, eta horien jarduketan eragin energetikoa ebaluatzeko ekimena aurrera eramateko ahalmena ematen zaio.

Azkenik, kontseilu aholku-emailea eratzten da, foru lege hau aplikatzeko gauzatuko den politikaren jarraipenean gizartearen partaidetza zabala erdiesteko. Kontseiluko kideen artean enpresa sektoreetako ordezkariak, unibertsitatekoak, administrazioakoak, kontsumitzaileenak, sindikatuak eta mugimendu ekologistak izanen dira.

I. KAPITULUA **Kontzeptua eta helburuak**

1. artikulua. Helburuak

1. Foru lege honen helburua da energia eraginkortasunaren eta energia berriztagarrien sustapena Nafarroan, industria, energia eta ingurumen arloetako politikaren lehentasunezko ildo bihurturik, halako moduan non Nafarroak, 2010. urterako, %8 gutxituko dituen negutegi efektuaren eragile diren gasen igorpenak –1990ekoekin alderaturik–,

eta Nafarroako lurraldean energia nuklearraren aukera bazterturik geratuko den, hurrengo artikuluan deskribaturiko moduan.

2. Helburu hori lortzeko tresnak energiaren aurrezpenean eta energia berriztagarrien arloan espezializaturiko institutu bat eta kontseilu aholkumeaile bat sortzearen inguruan antolatuko dira, bai eta horiek planifikatu eta sustatzeko tresnak ezartzearen inguruan ere.

2. artikulua. Energia berriztagarrien kontzeptua.

1. Energia elektrikoa ekoizteko jardueri –Estatuko oinarritzko araudiaren arabera, araubide berezikotzat jo daitezke– baimena emateko tramitazioari dagokionez, horien definizioa da Sektore elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legean eta hura garatzen duen erregelamenduzko araudian ezarritakoa.

2. Foru lege honek politika aktiborako dituen tresnen laguntza jasotzeko, energia iturri berriztagarritzat hartzen dira honako energia edo baliabide hauek ustiatuz energia elektrikoa edo termikoa ekoizten dutenak:

– Eolikoa, hau da, haizearen energia zinetikoa aerosorgailuen bidez energia elektriko bihurtzen duena.

– Eguzkiko termikoa –aktiboa eta pasiboa–, hau da, eguzkiaren irradiazioaz baliatzea isuri bat berotzeko. Isuri hori, ondoren, ur beroa, lurrina edo energia elektrikoa sortzeko erabiltzen da.

– Eguzkiko fotovoltaikoa, hau da, eguzki irradiazioaz baliatzen dena zuzenean energia elektriko bilakatuz.

– Hidrauliko txikia, 10 MW baino gutxiagoko potentzia duten zentral hidroelektrikoek ekoiztia, non instalazioek ur laster baten energia zinetikoa energia elektriko bilakatzen baitute.

– Biomasa, baso, abeltzaintza, nekazaritza edo labore energetikoen hondakinen bidez eskuratzen dena, zuzenean errez edo bitarteko eraldaketa prozesuen bitartez, hala nola bioalkohola, biogasa edo beste batzuk.

– Geotermikoa, hau da, lurrazpiko ur-tokien beroa, tenperatura baxuan, ertainean edo altuan, edo harri bero lehorra aprobeztatzen duena ur beroa edo lurrina lortzeko.

3. Era berean, foru lege honek politika aktiborako agertzen dituen tresnen bitartez baterako sorkuntzaren araubideko ekoizpena bultzatuko da, betiere 25 MW baino gaitasun txikiagoko instalazioetan; baterako sorkuntza elektrizitatea eta bero

erabilgarria batera ekoiztea da, ondoren ustiapen energetikoa emateko, edozein delarik ere haren erregai nagusia.

3. artikulua. Energia nuklearra.

1. Nafarroako Foru Komunitateak, lurraldearen antolamendu, hirigintza, osasun eta ingurumen alorretan dituen eskumenez baliatuz, ez du baimenik emanen bere lurraldean hondakin erradioaktiboan biltegiak sortzeko, ez eta ezein motatako errektore edo zentral nuklearrik eraikitzeke ere, ez energia ekoiztekerik ez hondakin erradioaktiboen tratamendukorik; ez du baimenik emanen, ezta ere, araudi indardunaren arabera Segurtasun Nuklearraren Kontseiluaren baimena behar duten instalazio nuklear eta erradioaktiborik paratzeko, kontuan harturik energia mota horren erabilerak zein arrisku larri dakartzan ingurumenerako eta pertsonen osasunerako. Debeku horretatik kanpo dago Nafarroan sorturiko jatorri mediku zein zientifikoko hondakin erradioaktiboak biltegiatzea edo tratatzea.

2. Era berean, aurreko lerrokadan aipatutako helburuetara bideraturiko edozein ikerketa eta garapen motak ez du Nafarroako administrazio publikoen diru laguntzarik edo zerga laguntzarik –zuzenekoak zein zeharkakoak– jasoko.

II. KAPITULUA

Energia eraginkortasuna eta energia berriztagarriak garatzeko planak

4. artikulua. Planak.

1. Nafarroako Gobernuak energia eraginkortasuna eta energia berriztagarriak garatzeko urte antizeko plan bat prestatuko du.

2. Plan horren helburua izanen da baliabide energetiko berriztaezinen erabilerak eguratsean eragindako kutsadura gutxitzea –1. artikuluan ezarritako portzentajea–, auto-hornidura areagotzea eta energia kontsumo txikiagoa eta energiaren erabilera arrazoizkoagoa sustatzea; hori guztia, batetik, eskarian eraginez, txikiagoa izan dadin energiaren gastua baina beretsua ordea jarduera ekonomikoaren eta herritarren ongizatearen maila, eta, bestetik, energia berriztagarrien alde eginez, baterako sorkuntza barne. Osagarri gisa, planak bultzatuko du gai horien inguruko ikerketa garatzea eta enpresak sortzea Nafarroako lurraldean.

5. artikulua. Planaren edukia.

1. Planak amaierako energiaren eskariaren gaineko helburuak ezarriko ditu konpromiso nazionalen, Europako eta nazioarteko esparruan, bai eskaria gutxitzeari dagokionez –aurrezpena– bai betiko energia fosilen ordeztu energia berriztagarriak

eta hain kutsagarriak ez direnak, kasuan kasukoak, erabiltzeari dagokionez.

2. Plana jarduketa programen bidez antolatuko da, arlo hauetara, behinik behin, zuzendurik:

- Energiaren aurrezpena.
- Energia berriztagarriak, baterako sorkuntza barne.
- Ohiko bektoreak ordeztzea hain kutsagarriak izan gabe eskariaren esparruan eraginkorragoak direnekin.

3. Planak honako alderdi hauek jaso beharko ditu, gutxienez:

a) Planak izan beharko lituzkeen ondorioak:

– Ondorio energetikoak: amaierako energiari (joerazko eskaria gutxitzea eta erregaiak ordeztzea) eta elektrizitatearen eta energia primarioaren ekoizpen eskaintzari dagokionez.

– Ingurumenaren gaineko ondorioak: kontsumitu gabeko erregaiak eta energia berriztagarri eta ez hain kutsagarriekin ordeztzea; halaber, eguratsa kutsatzen duten igorpenak % 8 gutxitzea, 1. artikulua ezarri bezala.

– Energia eraginkortasuneko ondorioak, amaierako energiari dagokionez.

– Teknologia, ikerketa eta ekonomia (industria eta zerbitzuak) jardueraren gaineko ondorioak.

b) Gauzatu beharreko jarduketak zehaztea eta lehentasunak ezartzea.

c) Planerako aurreikusiriko finantzabideak ezartzea.

d) Fiskalitatearen arloan planaren jarduketei ahal den etekinik handiena ateratzeko proposamenak.

6. artikulua. Aurrezpenerako eta eskariaren kudeaketarako programa.

1. Aurrezpenerako programaren helburua izanen da energia eskariaren maila nabarmen gutxitzea, baina ongizate eta jarduera ekonomikoaren mailan gutxi eraginez.

2. Programak honakoak egingen ditu, gutxienez:

a) Programaren helburuak ebaluatzeko metodologia bat finkatu.

b) Esku hartzearen jomuga diren sektoreak –horien artean ezinbestean egon beharko dira industria, garraioa eta eraikuntza– zehaztu.

c) Jarduketa motak jaso, eskariaren gaineko jarduketak barne, bai eta neurri teknikoak, kudea-

ketakoak eta, hala bada, zerga arlokoak. Gutxienez jarduketa hauek jasoko dira:

– Eraikuntzaren sektorea: eraikuntzarako energia aurrezpenarekin zerikusia duten enpresen eta produktuen homologazioa, bai eta energia eraginkortasunaren etiketa bat ezartzea ere kontsumitzaileari eraikinen energia eraginkortasunari buruzko informazioa emate aldera. Hirigintza eta arkitektura bioklimatikoari buruzko araudi baten proposamena; bereziki alderdi hauek jorratuko dituen: isolamendu termikoa eta berokuntza, klimatizazioa eta ur ekipamenduak. Jarduketak eraikin berrien nola dagoeneko eraikirik daudenen gainekoak izanen dira.

– Etxetresna elektrikoak: energia eraginkortasunaren etiketak zabaldu eta hedatzeko programak etxeko tresna elektrikoaren sektorean. Arlo horretan kontsumoaren mugak arautzeko proposamena.

– Industriaren sektorea: enpresetarako neurri teknikoak eta prestakuntza arlokoak sektore horretan; kontsumitzaileak sentsibilizatzeko programak.

– Garraioaren sektorea: sektore horretako Estatuko eta Europako programetarako laguntza neurriak; sostengu teknikoa eta sustapena energiaren ikuspuntutik eraginkorrak diren eta hirigintza plangintzarekin loturik dauden trafiko ereduertako; garraio publikoak, batez ere trenak dituen onurez sentsibilizatzeko erabiltzaileak; ibilgailuen inguruko neurri teknikoak; bioerregaiak bultzatzea; garraio azpiegituren plangintza autonomikorako irizpideak ezartzea.

d) Programarekin lortu beharreko ondorioak.

7. artikulua. Energia berriztagarrien programa.

1. Energia berriztagarrien programak, ezinbestez, honakoak egin beharko ditu:

a) Energia mota horien kontsumoa handitzeari buruzko helburuak zehaztu, autonomia erkidegoek elektrizitate ekoizpenean duten parte-hartzea dela-eta, bai orokorrean bai energia iturri motaren arabera, eta energia primarioari dagozkion helburu orokorrak zehaztu.

b) Lege honen 2. artikuluan aipaturiko energia berriztagarrietako bakoitzaren eskaintzaren estrategiak jaso, baita baterako sorkuntzaren ere.

2. Programa horrek baterako sorkuntzari buruzko azpiprograma bat edukiko du, honako helburuak, behintzat, sustatzeko: sorkuntza elektrikoan energia primarioa aurreztea eta erregaiak ordeztzea aprobetxaturiko hondar-beroarekin; ohiko energia produktuak gutxiago kutsatzen duten eta eraginkorragoan diren beste batzuekin ordeztzea; eta emisio

kutsakorrek gutxitzea. Helburu zehatzak eta gauzatu beharreko ekintzak sektoreen eta erregaien arabera ezarriko dira.

8. artikulua. Ordezpen programa.

1. Programa horren helburua da eskariaren kudeaketaren bitartez sustatzea ohiko energia produktuak –hala nola, elektrizitatea– energia eraginkortasun handiagoa duten edo eguratsean kutsadura txikiagoa eragiten duten beste batzuekin ordez daitezkeen.

2. Programa horrek ondokoak jaso beharko ditu, gutxienez: helburu zehatz batzuk, sustatu beharreko ordezpenen helburuak ebaluatu ahal izateko metodologia zehaztua, aurreikusiriko ondorioak eta sektoreetan proposaturiko jarduketak.

9. artikulua. Beste plan batzuekin koordinatzea.

1. Planaren aldizkakotasuna eta edukia Espainian eta Europan izan daitezkeen pareko planekin koordinatuko da. Horrelakorik ez badago, aldizkakotasuna bost urtekoa izanen da.

2. Plana Nafarroako Plan Energetikoan txertatu ahalgo da, betiere foru lege honetan ageri diren edukia eta baldintzak gorderik.

III. KAPITULUA

Nafarroako Energia Eraginkortasunerako eta Energia Berriztagarrien Institutua

10. artikulua. Izaera juridikoa eta helburuak.

1. Nafarroako Energia Eraginkortasunerako eta Energia Berriztagarrien Institutua sortzen da, Foru Komunitateko administrazioan energiaren arloko eskumenak dituen departamentuari atxikitako erakunde autonomo gisa.

2. Institutuaren helburuak eta eginkizunak hauek izanen dira:

a) Nafarroan energia berriztagarri berriak ustiatzeko eta energia aurrezteko teknikak sustatzea.

b) Energiaren arloko eskumenak dituen departamentuaren bidez energia aurrezpen eta eraginkortasunerako plana proposatzea Nafarroako Gobernuari, onetsi dezan.

c) Zuzenean edo lankidetzaren bitartez, energia berriztagarrien eta energia aurrezpenaren arloko txostenak, programak eta ikerlanak egitea. Arlo horretako ikerkuntza bultzatzea lehentasun behin-etakoa izanen du institutuak.

d) Nafarroako Gobernuak energia berriztagarrien eta energia aurrezpenaren arloan erabilera

hobeki ezagutzeko eta dauden aukerez egokiro baliatzeko helburuarekin ematen dituen dirulaguntzak edo bestelako laguntzak erabaki eta bideratzea, baita bestelako erakunde publiko edo pribatuek emanikoak ere, hala agintzen badiote.

e) energia berriztagarrien eta baterako sorkuntzaren instalazioak –Nafarroaren eskumenekoak eta bereziki Estatuko oinarritzko legedian zehazturiko elektrizitatearen ekoizpeneko araubide berezian sarturik daudenak– baimentzeko tramitazioan, Foru Komunitateko araudiak emandako eskuduntzez baliatzea.

f) Energia berriztagarriei eta energia aurrezpenari buruzko dokumentazio zentro bat eta gai hauei buruzko informazio tresnak eratzea eta hartaz arduratzea.

g) Foru Komunitate barreneko zein kanpoko erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzaren harremanak ezartzea foru lege honen xede diren arloetan; batez ere, Nafarroan dauden toki agentzia energetikoekin.

h) Energiaren aurrezpenerako eta eraginkortasunerako aukerak zehazteko aholkularitza eta auditoretza energetikoko programak sustatu eta, behar denean, gauzatzea.

i) Erregio mailako energia baliabide berriztagarrien ustiapen egokia sustatzea.

j) Nafarroako enpresen parte hartzea bultzatzea teknologia energetiko aurreratuaren fabrikazioan; era berean, teknologia hori enpresa sektorean zabal dadin bultzatzea, bai eta enpresa horietan nazioko eta Europako Batasuneko programa energetikoak aplikatu daitezkeen bultzatzea ere.

k) Kontsumitzaileen artean zabaltzea energiaren aurrezpenaren eta energia berriztagarrien arloko merkatuan dauden aukera teknologikoak; horretarako energia eraginkortasunaren esparruan –arkitektura bioklimatikoa, etxetresna elektrikoak, materialak, berokuntza sistemak bezalako sektoreak barne–, ekoetiketak sortu eta zabaltzea bultzatuko da.

l) Foru Lege honen xede diren arloetan profesionalen prestakuntzarako eta birziklapenerako programak garatzea.

m) Ikerketa proiektuetan parte hartzea beste ikerketa zentro batzuekin lankidetzan.

n) Energiaren erabilera arrazionalizatzeko programak prestatzea.

ñ) Nafarroako Gobernuaren departamentuak edo beste administrazio publiko batzuk ukitzen

dituzten energia programak, jarduketak eta proiektuak koordinatu eta garatzea.

o) Haren ekimenez, jarduketak eta programak proposatzea entitate publiko eta pribatuei –berezi-ki energiaren sektoreko enpresei– institutuaren helburuak lortzeko bideratuta; subjektu horiei, halaber, foru lege honekin bilatzen diren xedeetarako kaltegarriak izan daitezkeen ekimenak, programak edo proiektuak aldatzea proposatu ahalko die.

p) Aurreko puntuekin zerikusia duten jarduera mota oro gauzatzea.

11. artikulua. Lankidetzak.

1. Haren eginkizunak betetzeko, institutuak lankidetzak harremanak ezarri ahalko ditu energia berriztagarrien eta energia aurrezpenaren arloan jarduerak betetzen dituzten entitate publiko eta pribatuekin.

2. Merkataritzako sozietateak eta irabazi asmorik gabeko entitateak sustatu eta, halaber, horietan parte hartu ahalko du, institutuaren gain utzitako xedeek hobeki erdiesteko.

3. Institutuak Nafarroako Gobernuari igorri beharreko txostenak alde batera utzirik, institutuak bi urterik behin Nafarroako Parlamentura igorriko du egindako jardueri buruzko txosten zehatz bat.

12. artikulua. Gobernu organoak.

Institutuaren gobernu organoak honako hauek dira:

- Batzorde Exekutiboa.
- Zuzendaria.

13. artikulua. Batzorde Exekutiboa.

1. Batzorde Exekutiboa institutuaren gobernu eta ordezkari organo goren da. Haren kideak izanen dira energiaren arloko kontseilari eskuduna –bera izanen da batzordeburua–, institutuaren zuzendaria, gaiarekin lotura zuzenena duten departamentuen hiru ordezkari, Nafarroako Gobernuak izendatu beharrekoak, eta Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko beste lau kide.

2. Batzorde Exekutiboaren eginkizunak hauek izanen dira:

a) Institutuaren jardunerako ildoak ezartzea, energiaren arloko eskumenak dituen departamentuaren jarraibideekin bat.

b) Institutuaren jarduketa planak onestea.

c) Institutuaren aurrekontuaren aurreproiektua onestea, ondoren tramitatzeke, bai eta oroitidazkia, balantzea eta urteko emaitzen kontua ere.

d) Merkataritzako sozietateetan gutxiengo gisa parte hartzea onetsi eta Nafarroako Gobernuaren Kontseiluari proposatzea merkataritzako sozietateak sortzea edo gehiengo gisa parte hartzea.

e) Zuzendariak proposaturik, institutuaren barne antolaketa onestea, bai eta langileak hautatu eta onartzeko eta lansariak ezartzeko irizpideak ere.

f) Institutua ordezkatzeko, izaera orokorraz, egintza eta kontratu orotan eta edozein pertsona edo entitatearen aurrean.

g) Zenbait eginkizun eskuordetzea batzordeko buruari edo institutuko zuzendariari, betirako edo aldi baterako.

h) Institutuaren organoen barne araubideko erregelamendua onestea.

i) Zuzendariak proposaturik, langileen plantilla onestea.

14. artikulua. Zuzendaria.

1. Nafarroako Gobernuak izendatuko du Institutuko zuzendaria, Batzorde Exekutiboak proposaturik.

2. Zuzendariak honako eginkizun hauek izanen ditu:

a) Institutuaren ohiko ordezkariak.

b) Batzorde Exekutiboaren erabakiak prestatu eta betetzea.

c) Institutuaren jarduketa programa eta aurrekontuaren aurreproiektua prestatzea, bai eta oroitidazkia, balantzea eta urteko emaitzen kontua ere.

d) Batzorde Exekutiboari langileen plantilla proposatzea eta batzordearen eta institutuaren zerbitzuen zuzendaritza betetzea.

e) Gastuak eta ordainketak agintzea, eta horren berri ematea Batzorde Exekutiboari.

f) Batzorde Exekutiboak ezartzen duen gehiengo zenbatekoa gainditzen ez duten azterlan, obra, zerbitzu eta negozio juridikoen proiektuak onestea.

15. artikulua. Baliabideak eta ondare araubidea.

1. Institutuaren baliabideak honako hauek osatuko dituzte:

a) Nafarroako aurrekontu orokorretan instituturako aurreikusiriko zuzkidurak.

b) Haren jarduerak betetzeak, zerbitzuak emateak eta ondarea kudeatzeak eragindako dirusarrerak, ohikoak nola bereziak.

c) Bestelako ente publiko edo pribatuetatik heldu diren dirulaguntzak eta ekarpenak, edo partikularrek emandakoak.

d) Merkataritzako sozietateetan parte hartzetik heldu diren dirulaguntzak eta ekarpenak.

e) Nafarroako Gobernuak baimenduta itunduko dituzten kredituak, maileguak eta jesapenak.

g) Haren esku utzitako beste ekarpen oro.

2. Institutuak bere ondarea eta Foru Komunitateko ondareari atxikitako ondasunak izan ahalko ditu; ondasun horiek jatorrizko kalifikazio juridikoa gordeko dute eta ezin izanzen zaizkio gehitu institutuaren ondareari, ez eta besterendu edo trukatu ere, eta Foru Komunitateko ondareari buruzko legeriak arautuko ditu.

16. artikulua. Araubide juridikoa.

1. Institutuaren erabakiek ez dute administrazio bidea amaituko eta haien aurka ohiko errekurtsioa aurkeztu ahalko zaio energiaren arloko eskumena duen departamentuko titularrari.

2. Egintza deusez edo deuseztagarrien ofiziozko berrikuspena eta kaltegarritasunezko deklarazioa Batzorde Exekutiboak erabakita eginen dira.

17. artikulua. Desegitea.

1. Institutua foru lege bidez desegiten bada, Nafarroako Gobernuari atxiki gabeko ondasunak gobernura itzuliko dira, eta horrek energia berriztagarrien arloan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko Nafarroako entitateei eman beharko dizkie.

IV. KAPITULUA

Energia Eraginkortasunerako eta Energia Berriztagarrien Kontseilu aholku-emailea

18. artikulua. Kontseilu aholku-emailea.

Energia Eraginkortasunerako eta Energia Berriztagarrien Kontseilu Aholku-emailea sortu da, arlo hauetako politika zehaztean gizartearen partaidetza sustatzeko helburuarekin.

19. artikulua. Eginkizunak.

Kontseilu aholku-emaile horren eginkizunak hauek izanen dira:

a) Energia eraginkortasunerako eta energia berriztagarrien urte anitzeko planaren eta aldizkako gaurkotzearen inguruko azterlana eta irizpen loteslea.

b) Plan energetikoaren gaineko irizpena, hala korik izanez gero.

c) Energiaren arloko txostenak ematea, bere ekimenez edo institutuak, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak edo Nafarroan jarduten duen beste edozein administrazio eskaturik.

d) Energia Eraginkortasunerako eta Energia Berriztagarrien Institutuaren urteko oroitidazkiaren eta aurrekontuaren exekuzioaren berri izatea eta neurriak proposatzea haren jarduna, baita Foru Komunitateko administrazioaren politika energetikoa ere, egokiagoak izan daitezzen.

20. artikulua. Kideak.

1. Honako hauek izanen dira kontseilu aholku-emailearen kideak:

a) Institutuko zuzendaria.

b) Nafarroako Unibertsitate Publikoak izendaturiko bi ordezkari.

c) Merkataritza eta Industria Ganberaren ordezkari bat.

d) Foru lege honen xede diren sektoreetan aritzen diren enpresetako bi ordezkari, energiaren alorreko eskumena duen kontseilariak hautatuak.

e) Ordezkaritza handiena duten sindikatueta bi ordezkari.

f) Nafarroako talde ekologistetak bi ordezkari, taldeetako kideek izendatuak.

g) Bost kide, Nafarroako Parlamentuak sona zientifiko eta profesionala duten adituen artean hautatuak.

h) Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen erakunde ordezkari bat.

2. Kontseiluko burua kontseiluko kideen artean hautatuko da.

3. Energiaren arloko eskumena duen departamentuak emanen dizkio kontseilu aholku-emaileari eginkizunak betetzeko behar dituen giza eta gauza baliabideak. Horretarako, kontseilu aholku-emaileak gastuen aurrekontu bat igorriko du, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektuan sartzeko.

21. artikulua. Jardunbidea.

1. Kontseilu aholku-emaileak urtean hiru aldiz, gutxienez, eginen du ohiko bilkura, eta bilkura bereziak, berriz, lehendakariak komenigarritzat jotzen duen edo kideen heren batek eskatzen duen aldiro.

2. Kontseiluak prestatu eta onetsi beharreko barne araubideko erregelamendu baten bidez arautuko da barne jardunbidea.

Xedapen gehigarriak

Lehendabizikoa. Arkitektura eta hirigintza bioklimatika.

1. Gehienez ere sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak erregelamenduzko araudi bat onetsi beharko du, energia aurrezteko eta energia berriztagarriak sustatzeko neurriak, derrigorrez bete beharrekoak eta Foru Komunitateko etxebizitzaren eraikuntzan aplikazio orokorra izanen dutenak, ezartzeko.

2. Foru Komunitateak etxebizitzaren arlorako eginen dituen esku-hartze planek etxebizitza babestuetarako sustapen ekonomikoko neurri bereziak izanen dituzte, horien energia eraginkortasunaren arabera.

3. Foru Komunitateko administrazioak, etxebizitza babestuak lurzoru publikoaren lagapenaz baliatuz hirugarrenen bidez sustatzeko politikan, lurzoru hori adjudikatzeko lehiaketetan izaten diren baremoei irizpide bioklimatikoak gehituko dizkie.

Bigarrena. Programak eraikin publikoetan.

Foru Komunitateko administrazioak, gehienez ere urtebeteko epean, haren titularitateko eraikinetan eta argi publikoetan energia aurrezteko eta energia berriztagarriak ezartzeko neurrien programa bat prestatuko du. Era berean, laguntza ekonomikoen bitartez Nafarroako toki entitate guztietan antzeko programak abian jar daitezzen sustatuko du.

Hirugarrena. Errausketa debekatzea.

Ingurumenaren aldetiko arrazoiak direla-eta, Nafarroako Foru Komunitateak, haren eskumenen

barrenean, ez du baimenik emanen energia hiri eta industria hondakinak errez ekoizteko instalazioirik paratzeko.

Laugarrena. Aerosorgailuak sare elektrikoari lotzea.

Foru Komunitateko administrazioak, energiaren eta industriaren arloan dituen eskumenez baliatuta, aerosorgailu eolikoak sare elektrikoari baldintza tekniko eta finantzario egokietan lotzeko laguntza emanen du, eta enpresa elektrikoek sareari lotzeko oztopoak edo eragozpenak jartzea galaraziko.

Xedapen iragankorrak

Lehendabizikoa. Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, gehienez, Nafarroako Gobernuak Energia Eraginkortasunerako eta Energia Berriztagarrien Institutuaren estatutuak onetsi beharko ditu.

Bigarrena. Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, gehienez, Nafarroako Gobernuak energia berriztagarriak eta energia eraginkortasuna garatzeko urte anitzeko plan bat prestatu beharko du.

Azken xedapena

Foru lege honek 2007ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra, edo Nafarroako Aldizkari Ofizialean egun hori baino beranduago argitaratuko balitz, argitaratu eta biharamunean.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Gizarte Segurantzaren kuota ordain diezaien nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategi baten titularkide diren emakume guztiei.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Gizarte Segurantzaren kuota ordain diezaien nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategi baten titularkide diren emakume guztiei".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta onesteko:

Nafarroan, estatuan gertatzen den moduan, landa eremuetako emakume gehienak anonimotasun egoeran bizi dira eta familiaren ustiategian egiten dute lan.

Nafarroako Emakumearen Institutuak eginiko txosten baten arabera, nekazaritzan lan egiten duten emakume gehienak familiaren negozioko laguntzailatzat hartzen dira, eta inolako ordainsari pertsonalik, eskubide sozialik eta lanbide nortasunik gabe egiten dute lan, eta nekazaritza erroldan titularraren bikotekide gisa agertzen dira.

CEIN-Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra erakundearen arabera, "Nafarroan nagusiki nekazaritzan eta abeltzaintzan lan egiten dutenetik, soilik %15 dira emakumeak", baina horrek ez du esan nahi ez dutenik lanik egiten.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ustiategi baten titularkide diren 40 urtez beherako emakumeei Gizarte Segurantzako kuoten %20 gutxienez ordain diezaien 3 urtez, haien bikotekidea nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategi bateko titularra izan eta Gizarte Segurantzako nekazaritzako erregimen berezian alta emana den kasuetan. Ordainketa hori gehituko litzaioke emakumeak Gizarte Segurantzako nekazaritzako erregimen berezian afiliatuzen sustatzeko Nekazaritza Ministerioak hiru urte horietan eskaintzen duen %30ari.

Iruñean, 2006ko azaroaren 16an

Eleduna: Fernando Puras Gil

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan teknologia berrien alorrean.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan teknologia berrien alorrean".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran Batzordean eztabaidatu eta onesteko:

Zioen azalpena

Aurrerapenak izan diren arren, gure foru erki-degoa eten digitala pairatzeko eta Europar Batasunak teknologia berrien arloan ezarritako irizpideetara ez iristeko arriskuan dago. Hori dela eta, beharrezkoa da neurri handiagoak hartzea gure herritarrek baldintza hobek izan ditzaten.

Horiek horrela, mozio hau aurkeztu dugu:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ondokoak egin ditzan:

1. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloko cluster bat sortzea Nafarroan.

2. Teknologia zaintzeko sistema eraiki dezan, Nafarroan sektoreak sistema hori eskuragarri izateko eta etengabe teknologien arloko aurrerapen berri izatea ahalbidetzeko.

3. Banda zabaleko konexioak susta ditzan, estatuaren batez besteko ratioak baino handiagoak lortu ahal izateko eta 2010. urterako etxeen %45ek interneteko konexioa izatea lortzeko, eta hori lortze aldera lankidetzak itunak egin ditzan telekomunikazio operadoreekin.

4. Mikroenpresei dirulaguntzak emateko karpaina egin dezan, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak sartzeko egiten dituzten jarduketak finantzatzeko; izan ere, eginiko azterketek erakusten dute Nafarroako mikroenpresek eskasia dutela informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloko ekipamenduari dagokionez, honakoak barne: ekipamendu informatikoa, banda zabaleko interneteko konexioa, enpresen web orriak, oinarriko kudeaketa egiteko tresnak eta kudeaketa aurreratua egiteko tresnak.

5. Finantziario-eragiketarako ezartzea, lehentasunezko baldintzekin, teknologia berriak sartu nahi dituzten enpresa txiki eta ertainek eginiko inbertsioetarako; hain zuzen, haien lehiakortasuna handitzeko asmoz negozioaren faktore gakoetan berritasunak sartzen diren kasuetarako.

6. Beharrezkoak diren neurriak har ditzan banda zabaleko telekomunikazioen azpiegiturak foru erkidegoan hedatzeko, Nafarroako udalerrri eta toki entitateetatik 50 biztanle baino gehiago dituzten guztietara irits daitezela.

Iruñean, 2006ko urriaren 27an

Eleduna: Fernando Puras Gil

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da fibromialgiako eta neke kronikoaren sindromeke gaixoen tratamendurako jarduketako protokolo bat taxutu dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da fibromialgiako eta neke kronikoaren sindromeke gaixoen tratamendurako jarduketako protokolo bat taxutu dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta onesteko:

Zioen azalpena

Nazioarteko medikuen erakunde guztiak eta Osasunaren Mundu Erakundeak aintzat hartzen duten gaixotasuna da fibromialgia. Gaixotasunen nazioarteko kodifikazioan M 79.7 kodearekin sailkatuta dago.

Fibromialgiak eta neke kronikoaren sindromeak eragin garrantzitsua dute gaixotasun horiek dituzten pertsonen osasunean eta bizi kalitatean. Gainera, gizarteak oso gutxi daki gaixotasun horietaz.

Badira gaixotasunak oso antzeko agerpena eta sintomak dituztenak –mina eta nekea–, eta, hori dela eta, funtsezkoa da minaren diagnosi bereizgarria egitea, diagnosi zuzena egiteko eta tratamendu terapeutiko egokia ezartzeko.

Garrantzitsua da gaixotasun horien diagnosis eta tratamendua arreta goiztiarrera, sintoma

nabarmenenak arintzera eta ahalik eta ondoen errekuperatzera bideratzea. Horretarako, egokitzat jotzen da, eskuragarri diren ebidentzia zientifikoek erakusten dutenaren eta adituen gomendioen arabera, gaixotasun kroniko horiei ematen zaien arreta gidatzea oinarrizko osasun laguntza zerbitzutik, osasun sare espezializatuarekin koordinatuta.

Horrekin lotuta, beharrezkoa da jarduteko protokoloak ezartzea, osasun arloko langileek gaixotasun horri buruz duten ezagutza hobezatzen. Protokolo horietan jarraibide terapeutikoak jasoko dira, diagnosi prozedurei buruzko irizpide adostuak eta gaixotasun hori duten gizon-emakumeei minaren aurkako tratamendu integratu eta zuzena eskaini ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozio hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du fibromialgiako eta neke kronikoaren sindromeke gaixoen tratamendurako jarduketako protokolo bat taxutu dezan, osasun arloko langileekin adostuta.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Osasunbideko prestakuntza planen barruan gaixotasun horiei buruzko prestakuntza plan bat presta dezan, aurreko idatzatian aipatutako protokoloan jasotzen diren jarraibideekin, batik bat oinarrizko osasun laguntzako medikuei zuzenduta.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eritasun horiek Nafarroan duten prebalentziari buruzko azterlan bat egin dezan.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hurrengo aurrekontu orokorretan beharrezkoa den dirua jar dezan, mozioko aurreko idatz-zatietan aipatutakoak ahalbidetzeko.

Iruñean, 2006ko urriaren 31n

Eleduna: Fernando Puras Gil

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da AP-15ean telesari sistemak instalatzeko behar diren jarduketak egin ditzan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da AP-15ean telesari sistemak instalatzeko behar diren jarduketak egin ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu

du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da AP-15ean ibilgailuak gelditu beharrik ez izatea ahalbidetzen duten telesari sistemak instalatzeko behar diren jarduketak egin ditzan.

Zioen azalpena

Autobide horretan erabiltzaileek ordaindu beharreko ordainsaria mantentzen den bitartean, arrazoizkoa dirudi telesari sistemak jartzea, ibilgailuak ordaintokietatik igarotzean gelditu beharrik ez izateko, ordainsaria duten estatuko autobide gehienetan gertatzen den moduan.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozio hau aurkeztu du:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du AP-15ean ibilgailuak gelditu beharrik ez izatea ahalbidetzen duten telesari sistemak instalatzeko behar diren jarduketak egin ditzan, ordainsaria mantentzen den bitartean.

Iruñean, 2006ko azaroaren 6an

Eleduna: Fernando Puras Gil

Adierazpen politikoa, emakumeen askatasuna, autonomia eta segurtasuna aldezteko.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2006ko azaroaren 20an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak dei egiten du:

– Emakumeen askatasuna, autonomia eta segurtasunaren aldeko gure ekintza politikoa irmotasunez eta indarrez defendatzera.

– Ahaleginak areagotzera herritarrek arlo horretako delituen kontzientzia har dezaten, laster prestatuko den genero indarkeriari aurrea hartzeko estrategia nazionalaren bidez.

– Indar politiko guztiek genero indarkeriaren aurka duten konpromisoa mantentzera eta sustatzera, eta erabilera alderdikoi oro saihestera.

– Genero indarkeriaren biktima diren emakumeen babesaren eraginkortasuna hobetzen jarraitzera, esparru judizialean, polizialean eta baita haien familia eta gizarte ingurunean ere."

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Lehendakaria, Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Real Madrid futbol taldeko lehendakariari harrera ofiziala egiteko arrazoiei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Real Madrid futbol taldeko lehendakariari harrera ofiziala egiteko arrazoiei buruzkoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Lege-

biltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Prentsaren bidez jakin genuen Nafarroako Gobernuako lehendakariak, Nafarroako Parlamentuko lehendakariarekin batera, harrera ofiziala egin ziola Real Madrid futbol taldeko lehendakariari.

– Zeintzuk dira Real Madrid futbol taldeko lehendakariari harrera ofiziala egiteko arrazoiak? Harrera bera egin al zaie Osasunaren zelaian jokatzeko gainerako futbol taldeetako lehendakariari? Aurreikusi al da beste kirol talde batzuetako lehendakariari ere harrera ofiziala egitea?

Iruñean, 2006ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, jakiteko zenbat alditan erabaki duen Nafarroako Gobernuak Espainiakoari eskatzea trafikoari buruzko eskumena.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, jakiteko zenbat alditan erabaki duen Nafarroako Gobernuak Espainiakoari eskatzea trafikoari buruzko eskume-

na. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Nafarroako Gobernuak zenbat aldiz erabaki du azken zortzi urteotan Espainiako Gobernuari trafikoaren kudeaketari buruzko eskumena eskatzea? Noiz?

Iruñean, 2006ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

Galdera, Hezkuntza Departamentuak Atarrabian bigarren hezkuntzako institutu bat eraikitzeke asmorik ote duen jakiteko.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, Hezkuntza Departamentuak Atarrabian bigarren hezkuntzako institutu bat eraikitzeke asmorik ote duen jakiteko. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurrak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kon-

tseilari Luis Campoy Zueco jaunak idatziz erantzun diezaión:

Burlatako Ermitaberri, Atarrabiako Atargi, Uharteko Virgen Blanca eta Zubiriko Xabier Zubiri ikastetxeetako zuzendariak dituzten txosten batzuen arabera, 2008-2009 ikasturtean Burlatako Askatasuna institutuan ikaspostuen kolapso bat gertatuko da; izan ere, ikasleak ikaspostuak baino gehiago izanen dira.

Galdera

Hezkuntza Departamentuak ba al du Atarrabian epe laburrean bigarren hezkuntzako institutu bat eraikitzeke asmorik, D ereduko ikasleen eskaerari erantzuteko? Hala bada, noiz prestatuko da institutu berria eraikitzeke proiektua? Noiz egonen litzateke institutu hori funtzionamenduan?

Iruñean, 2006ko azaroaren 10ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, jakiteko Ingurumena babesteko jarduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legeko 7. artikuluan xedatzen dena bete ote den Elerebro enpresari Castejónen zentral termiko bat jartzeko lizentzia ematean.

FORU PARLAMENTARI TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak egindako galdera, jakiteko Ingurumena babesteko jarduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legeko 7. artikuluan xedatzen dena bete ote den Elerebro enpresari Castejónen zentral termiko bat jartzeko lizentzia ematean. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuko Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Ingurumena babesteko jarduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legearen 7. artikuluan xedatutakoa betetzeari buruzko galderak. Araudi hori aplikagarria zen Castejóngo Elerebro enpresaren zentral termikoko bigarren taldeari jarduera lizentzia eman zitzaionean, nahiz eta gaur egun indargabetuta dagoen, Ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legearen bidez.

Lehenik eta behin, kontuan hartu behar da aipatu artikulua ezartzen duena:

“Jarduera sailkatuen kasuan, haien funtzionamenduak pertsonentzako, ondasunentzako edota ingurumenerako orokorrean arrisku larria ekar dezakeenean, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak horien titularrari fidantza bat eratzeko eta aseguru bat kontratatzeke eskatu ahalko dio, pertsoneri edo ingurumenari eragindako balizko kalteen konponketa bermatzeko”.

Bestalde, jarduera industrial hori, bere ezarpenaren eta funtzionamenduaren ezaugarriak direla

eta, ingurumen eraginaren ebaluazioari eta kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko araudien menpe dago (kutsatzeko arrisku handia duten jardueri aplikatzen zaien araudia, alegia). Jarduera horrek kalteak eragin ahal dizkio pertsonen osasunari, segurtasunari eta suteen aurkako babesari buruzko araudi zorrotzenen menpe dago, eta Castejóngo udalerritik 500 metro baino gutxiagora ezarri nahi da; hain zuzen, Ebro ibaiaren ondoan eta Batasunaren Intereseko bi Lekuren artean (zehazki, Alfaro “Sotos eta Riberas del Ebro”, kilometro 1 baino gertuago, eta Valtierra “Soto Alto”, zentraletik 1.800 metrora dagoena, eta Castejóngo “Soto Giraldegi”, zentraletik 2 kilometrora dagoena).

Eta, azkenik, esan behar da jarduera sailkatuak jartzeko proiektu teknikoaren espedientean ez dela inon agertzen fidantza eman denik edo erantzukizun zibileko aseguru kontratatu izana egiaztatzen duen agiririk, eta ingurumen baimen integralari buruzko espedientean AIG Europe aseguru-etxearen agiri bat agertzen dela, esaten duena Eléctrica de la Ribera del Ebro, S.A enpresa sustatzaileak erantzukizun zibilar buruzko aseguru poliza bat duela, “2003ko apirilaren 1eko 00:00etatik 2004ko apirilaren 1eko 00:00etara”.

Hauek dira galderak:

1. Jarduera horri jarduera sailkatuaren lizentzia eman zitzaionean, 2006ko urtarrilaren 23an, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak eskatu al zien jardueraren sustatzailei fidantzarik edo aseguruirik?

Hala ez bada, zergatik eta zer irizpideren arabera? Gaur egun, nola estali nahi dira ingurumenerako eta pertsonen osasunerako gerta litezkeen kalteak?

Hala bada, zergatik ez da espedientean agertzen? Fidantza bada, zer kopurutakoa? Indarrean al da gaur egun? Aseguru poliza bada, zer konpainiarena? Polizaren kopia bat nahi dut.

2. 16/1989 Foru Araua indarrean egon den bitartean, zenbat fidantza ezarri dira? Zer jarduera sailkatuari ezarri zaizkie?

3. Zer irizpide erabiltzen ditu kontseilariak fidantzak eskatzeko jarduera sailkatuen arloan?

4. Eskatu al zitzaien fidantzarik edo aseguruak kontratatzerik Elerebro zentralaren lehen taldeari, edota Castejónen dagoen Iberdrolaren CTCC-ri?

Iruñean, 2006ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervás

Galdera, jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko Baluarteke plaza zolatzeari.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko Baluarteke plaza zolatzeari. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

– Zer arrazoi egon da Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko Baluarteke plaza zolatzeari?

Iruñean, 2006ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko aireko garraioetako publizitate instituzionalari.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko aireko garraioetako publizitate instituzionalari. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

– Zer arrazoi egon da Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko aireko garraioetako publizitate instituzionalari?

Iruñean, 2006ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko Barillasko eremu soziokulturalari.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko Barillasko eremu soziokulturalari. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

– Zer arrazoi egon da Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko Barillasko eremu soziokulturalari?

Iruñean, 2006ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko Ostiako San Gregorioren basilika zaharberritzeari.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko Ostiako San Gregorioren basilika zaharberritzeari. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

– Zer arrazoi egon da Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko Ostiako San Gregorioren basilika zaharberritzeari?

Iruñean, 2006ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko Corellako San Miguel eliza zaharberritzeari.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko Corellako San Miguel eliza zaharberritzeari. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

– Zer arrazoi egon da Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko Corellako San Miguel eliza zaharberritzeari?

Iruñean, 2006ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, bide hezkuntzako monitore (erdi mailako teknikari) izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak egindako galdera, bide hezkuntzako monitore (erdi mailako teknikari) izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregulamentuan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

2003ko ekainaren 20ko 77. Nafarroako Aldizkari Ofizialean Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak 2003ko ekainaren 9an emaniko Ebazpena argitaratu zen, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko bide hezkuntzako monitore (erdi mailako teknikari) izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onesten zuena. Ebazpen haren 6.2. oinarriaren arabera, oposizio-lehiaketak 2003ko irailean hasi behar zuen.

2004ko maiatzen 21eko 61. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak maiatzaren 10ean emaniko 83/2004 Ebazpena. Haren bidez, Iruñeko 2. administrazioarekiko auzien epaitegira bidali zen Javier Barinaga Adrián jaunak aipatu deialdiaren aurka jarritako administrazioarekiko auzi errekurtsuari buruzko espedientea. Ebazpen horretan ez da oposizio-lehiaketaren prozedura eteteari buruzko aipamenik egiten.

Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak abuztuaren 9an emandako 1833/2004 Ebazpenaren bidez onetsi zen deialdian onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda. Ebazpen hori 2004ko irailaren 13ko 110. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, eta bertan 2003ko ebazpenaren

aurka jarritako errekurtsio bat aipatzen da, zehaztapen gehiagorik gabe.

Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak abuztuaren 20an emandako 2878/2004 Ebazpenaren bidez, deialdian onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsi zen eta deialdiaren 6.2. oinarria aldatu eta oposizioaldiko lehen ariketa egiteko beste egun bat ezarri zen, 2005eko otsailaren 7a, hain zuzen. Ebazpen hori 2005eko urtarrilaren 10eko 4. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, eta ez du prozedura atzeratzearen arrazoiei buruzko aipamenik egiten.

2005eko uztailaren 29ko 90. Nafarroako Aldizkari Ofizialean Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emandako uztailaren 18ko 1759/2005 Ebazpena argitaratu zen. Haren bidez, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko auzien salara bidali zen Nafarroako Comisiones Obreras sindikatuak Nafarroako Gobernuak 2005eko apirilaren 19an hartutako erabakiaren aurka jarritako administrazioarekiko auzi errekurtsioaren espedientea. Nafarroako Gobernuaren erabaki haren bidez, aipatu deialdia onetsi zuen Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren 2003ko ekainaren 9ko Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsioa ezestea erabaki zen. Ebazpen horretan ez da oposizio-lehiaketaren prozedura eteteari buruzko aipamenik egiten.

2006ko urriaren 27ko 129. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren urriaren 16ko 2505/2006 Ebazpena. Haren bidez, deialdian aurreikusitako lehen ariketa 2006ko azaroaren 10ean eginen zela ezarri zen. Ebazpen horren zioen azalpenean azaltzen denez, "Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak deialdia onesteko 2003ko ekainaren 9an emandako ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsioa jarri zenez, ebazpena geldiarazi egin zen, hasieran aipatu errekurtsioa ebatzi bitarte, eta geroago, gora jotzeko errekurtsioa ezesten zuen 2005eko apirilaren 11n Nafarroako Gobernuak hartutako Erabakiaren aurka jarri zen administrazioarekiko auzi-errekurtsioa ebatzi bitarte. Aipatu administrazioarekiko auzi-errekurtsioa ezetsi denez gero, bidezkoa da oposizioaren lehen ariketarako beste egun bat jartzea"

Oso harrigarria da oposizio-lehiaketako prozedura honen bilakaera. Harrigarria da prozedura, antza denez, "de facto" etenda geratu izana, nahiz

eta 30/1992 legearen 111.1. artikuluan errekurrituta dauden egintzen exekuzioa ez eteteko arau orokorra ezartzen den. Harrigarria da organo eskudunak 2505/2006 Ebazpenean adieraztea deialdia etenizat jo zela, ez baitzuen inoiz hori xedatzen zuen ebazpenik eman, edo, behintzat, ez zen halakorik argitaratu Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 30/1992 legearen 111.5. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Harrigarria da ere Nafarroako Gobernuak 2003ko ekainaren 9ko ebazpenaren aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtsioa ezesteko hartu zuen erabakiak 2005eko apirilaren 19ko data izatea; izan ere, horrek esan nahi du errekurtsioa urtebete eta bederatzita hilabetetan ebatzi zela, legez ezarritako epea hiru hilabetekoa bada ere. Halaber, harrigarria da gora jotzeko errekurtsioa ebatzi gabe zegoela, 2878/2004 Ebazpenaren bidez 2005eko otsailaren 7a lehen ariketa egiteko egun gisa ezarri izana; izan ere, horrek esan nahi du egun horretan prozedura ez zegoenean etenda. Aldiz, 2505/2006 Ebazpenean kontrakoa adie-

razten da, gora jotzeko errekurtsioa jarri zenetik prozedura etenda zegoela, alegia.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dugu: Zergatik aipaturiko oposizio-lehiaketako prozedura atzeratu da hiru urte baino gehiago? Zergatik probak ez ziren 2003ko irailean hasi? Zergatik ezarri zen 2005eko otsailaren 7a lehen ariketa egiteko egun gisa, gora jotzeko errekurtsioa ebatzi gabe bazegoen? Zergatik probak ez ziren 2005eko otsailaren 7an hasi? Zergatik Nafarroako Gobernuak hain ardua gutxi erakutsi du deialdiaren aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtsioa ebazterakoan? Zergatik etetearen erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu gabe eten da deialdia? Prozedura honen izapidetzean diziplina erantzukizunik izan ote den jakiteko urratsik egin al da?

Iruñean, 2006ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

Galdera, Nafarroako Gobernuaren marketin eta publizitate kanpainaren helburuari, baliatu diren hedabideei eta aurrekontuari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuaren marketin eta publizitate kanpainaren helburuari, baliatu diren hedabideei eta aurrekontuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Lege-

biltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaien:

– Nafarroako Gobernuak publizitate eta marketin kanpaina bateko iragarkia argitaratu ditu, behinik behin, Diario de Navarra egunkarian; azaroaren 11ko egunkariko 31. orrialdean eta urriaren 29ko egunkariko 29. orrialdean. Zein da kanpaina horren xedea?

– Zein hedabidetan jarri dira kanpaina horri buruzko iragarkiak?

– Kanpainaren aurrekontu osoa eta xehetua.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, ospitaleratu beharra eragin duten barizela eta meningitis kasuei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA SANTESTEBAN GUEL BENZU ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Santesteban Guelbenzu andreak egindako galdera, ospitaleratu beharra eragin duten barizela eta meningitis kasuei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Santesteban Gelbenzu andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184.

artikuluaren eta hurrengo babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak iragarri duenez, barizelaren txertoa hurrengo txerto egutegian sartuko da. Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

– Zenbat barizela kasu izan dira aurretik? Zenbat gaixo ospitaleratu dira konplikazioak izateagatik?

– Neumokokoek eragindako zenbat meningitis kasu izan dira aurretik? Horietatik zenbatek behar izan dute ospitaleratzea?

Iruñean, 2006ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Helena Santesteban Gelbenzu

Galdera, gazteek sortutako enpresak sustatzeko sozietate bat eratze aldera Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuak eta Nafarroako enpresaburu gazteen elkarteak sinatu duten lankidetzahitzarmenari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELMA SÁIZ DELGADO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andreak egindako galdera, gazteek sortutako enpresak sustatzeko sozietate bat eratze aldera Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuak eta Nafarroako enpresaburu gazteen elkarteak sinatu duten lankidetzahitzarmenari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Elma

Saizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Gazteek sortutako enpresak sustatzeko sozietate bat eratze aldera zure departamentuak eta Nafarroako enpresaburu gazteen elkarteak sinatu duten lankidetzahitzarmenari buruz:

- Nortzuk dira sozietate berriaren bazkide eta zein da bakoitzak sozietatean duen partaidetza?

- Zer sozietate-kapital du eta zein da haren jatorria?

- Nortzuek osatuko dute laguntzaren xede izanen diren enpresa-proiektuak baloratuko dituen inbertsio-batzordea?

- Jada existitzen diren enpresen eta enpresa sortu berrien kasuan, zein dira bete behar dituzten

baldintza orokorrak eta egin beharreko izapideak, sozietate berriaren inbertsio bidezko finantziazioa lortzeko?

- Sinatutako itunaren indarraldia 2007ko abenduaren 31n amaituko da. Zein da heldu den urtean aurreikusten den inbertsioa enpresa berrientzat? Eta jada eraturako enpresentzat?

- Legardako udalerrian milioi bat metro koadrotik gora dituen industrialdea egingen da. Zer aurreikuspen ditu departamentuak etorkizunean bertan enpresak ezartzeari dagokionez? Zein epe aurreikusten da?

Iruñean, 2006ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Elma Saiz Delgado

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberako auditoretzako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzekoa.

Behin betiko izendapena

Nafarroako Comptos Ganberako auditoretzako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzeko deialdia bertako lehendakariak onetsi zuen 2005eko maiatzaren 25eko erabakiaz, eta 2005eko ekainaren 3ko 66. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Deialdiko 9. oinarriak ondokoa xedatzen du: "Auditoretzako teknikari izendapen behin betikoa erdiesteko, behin-behinekoz proposatu eta izendatutako izangaiek 6 hilabeteko praktikaldia gainditu beharko dute." Halaber, 10. oinarriak ondokoa ezartzen du: "Hautagaiak, aurreko arauak aipatzen duen praktikaldia bukatu eta "gai" kalifikazioa lorturik, Comptos Ganberaren lehendakariak behin betiko funtzionario izendatuko ditu. Izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da."

Aurreko guztia kontuan hartuta, praktikaldia bukatuta eta auditoretzako teknikari Xabier Iñigo Marticorena Chapa jaunaren, Edurne Martinikorena Matxain andrearen eta M^a José Equiza Maquirriain andrearen aprobetxamenduari buruz Ganberako kideek duten iritzia entzun ondoren, hona lehendakariaren

ERABAKIA:

Lehena. Xabier Iñigo Marticorena Chapa jaunari, Edurne Martinikorena Matxain andreari eta M^a José Equiza Maquirriain andreari praktikaldia burutu ondoren "gai" kalifikazioa ematea.

Bigarrena. Xabier Iñigo Marticorena Chapa jauna, Edurne Martinikorena Matxain andrea eta M^a José Equiza Maquirriain andrea Nafarroako Comptos Ganberako funtzionario izendatzea, behin betikoz, auditoretzako teknikari mailarekin.

Hirugarrena. Izendapen horiek Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Laugarrena. Erabaki hau interesdunei, Comptos Ganberako idazkari nagusiari eta administratzaileari jakinaraztea, bere ondoriak sor ditzan.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Comptos Ganberako Lehendakaria: Luis Muñoz Garde



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	